



Astolako entzutegi eta espetxea (Abadiño)

Astola entzutegi eta presondegi etxea Abadiñoako elizatean dago, Matiena eta Zelaieta -Eleizalde auzoen artean.

Entzutegia Durangoko merindadearen erdigune politiko administratiboetako bat zen. Bertan bizi zen Merindadeko Tenientea, zeinak biltzar arrunten burua zen, aguazil bat eta bertako elizatearen herri ordezkariekin batera. Abadiño, Apatamonasterio, Arrazola, Axpe, Berriz, Garai, Iurreta, Izurtza, Mallabia, Mañaria, Zaldua eta Etxebarriako San Agustin (Elorriorekin bat egin zen arte) ziren ordezkariak zuten elizateko herriak.

1508an, Errege Aginduz finkatu ziren Durangoko Merindade Biltzarrerako, presondegirako eta Korrejidorearen eta bere tenienteen entzutegirako egoitzak. Hala ere, ez zen eraikinik altxatu 1576ra arte, entzutegia eta espetxea Astola etxean ezarri ziren urtera arte alegia.

Eraikina

Gaurko eraikina 1784an gauzatuak berrikuntza zabal baten ondorioa da. Horretarako Tomas de Basterretxeak ezarritako diseinu eta baldintzak jarraitu ziren, eta fatxada behinenak, hau da, nagusia eta sartaldera begira dagoena, zimentarrietatik berreraiki egin ziren.

Astola oin-planta karratuko bolumen trinko zabala da, hiru altueretan antolatuta, hormak harlangaitzez moldatua. Jatorrian luzituta eta pintzelatuta zeuden harlandu lauza itxuran. Gaur egun, behin harria aterata (errekarriz ere osatua dagoena), itxura askoz zarpail eta herrikoia goa ematen du.

Harlandua erabiltzen da behe solairuaren hormaren tartean sarbideak duitzeko: fatxada nagusian zabaltzen dena eta sartaldeko atarikoak, zalditegi zaharretara ematen zuena. Harlanduzkoa ere da planta noblean irekitako sarbide nagusiarekin komunikatzen duen eskailera. Baita ere, egiturazko elementuak, baoen markoak eta katea itxurako bordatu angeluarrak.

Fatxada nagusian, eskaileraren mailaren azpian dagoen beheko solairuak bere sarbidea dauka, karpanel arku formakoa. Planta noblean sarbide nagusia dago, bao burudun single bat, bere eskuinaldean zabaltzen den ate-leihorearen oso antzekoa; ezkerrean sukalde zaharrei zegozkien beste leiho bi, kareldunak. Ganbaran lau hutsune burudun urratzen dira. Maltzoa amaitzeko zurezko egituraren parte bat, gaur egun beiraz hornituta, hiru isurialdeko teiltuaren estalirako.

Sartaldera, beheko solairuan, korta zaharrera joateko erabiltzen zen arku behekatu sarbidea ikusten da. Baita ere, gezileiho moduko hutsune txiki bi, animalien esparrua aireeratze funtzioa dutenak. Fatxadaren gainekoan badira modu irregularrean ezarritako bao burudun zenbait; planta noblekoak, kareldunak, Merindadeko erregimentuaren antzinako egoitzari eta Teniente jaunaren gelari zegozkien.

Beste aurpegi biek ez dute interes artistikorik, zaharrenak beraiek izan arren. Aipatu bakarrik bitxikeria moduan atzeko fatxadan mentsula ugari dagoela, horietako bik oraindik ere eusten diotela komunerako zegoen egitura zaharrari. Zentzu berean, alboko horma guztiz itxian, harlangaitzez barik harlanduz moldatutako horma zati zabal bat ikusten da, espetxeko gatibuen ihesaldi saio baten ondorioz egindako konponketagatik.

Etxearen funtzioei dagokionez, aurreratu dugun bezala, beheko planta zalditegirako erabiltzen zen. Planta nagusian, sarbideak sartuta, garaiera hau ganbararekin batzen duen eskailera dago. Gainekoa gizonezkoen presondegirako, entzutegirako eta Merindadeko Tenientearen gelarako erabiltzen zen. Ganbaran emakumezkoen presondegia zegoen jarrita.

Eraikina, eskuhartze berri bati esker guztiz errekonstratua, kontserbazio egoera onean dago. Beharbada zalantzan jartzeko da fatxadako harria bistara ateratzearen irizpidea, argitara utziaz arestian aipatutako errekarria moduko material txiroak. XVIII. gizaldian, Astola etxea berreraiki zenean, hormak luzitu eta pintatu egiten ziren bistara kalitatezko materialak soilik utziaz, kasu honetan, markoen harlanduak.

Testua: Ana Isabel Leis Alava.



Astolako entzutegi eta espetxea
Abadiño. (Astola auzoa, 26).

Bisitak egiteko ordutegia:

Eraikina Gerediaga Elkartearen egoitza da. Asteleheneetik ostiralera bisita daiteke. 15:30tik 18:00ra.

Hurbil dauden beste toki interesgarri batzuk:

- (Abadiño)
- Hilerria. (San Trokaz plaza.)
 - San Trokaz eliza. (San Trokaz plaza.)
 - Abadiñoako Iñigo jauregi-dorrea. (Zelaieta auzoa, 2.)
 - Zeletabe jauregia. (Zeletabe, 10.)
 - Traña Jauregia. (Matiena plaza, z.lg.)
 - Muntzaraz jauregia.

